


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko apirilaren 26a / 582. zenbakia



Arrasate Lehiaketak

AED elkarteak antolatzen duen lehiaketako irabazleak



Kalitatea • Aukera zabala • Arreta pertsonala

iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • Tel.: 943 79 00 43 • BAINU ERAKUSKETA Zarugalde, 52 • Tel.: 943 79 99 42

KALEINKESTA/ Negua pasau da eta atsalde luziaguek dittugu oin. Aprobetxetan dittuzu?



DOMEKA ALKORTA
Langillie

Baietz esango neuke. Oin, atsaldiek kirol apur bat egitteko aprobetxetan dittut: ahal dotenien mendire juen... Ordu aldaketie energia aurrezteko erabakixe ei da, baiñe konplikaue da.



AMAIA BARANDIARAN
Langillie

Pentsetan dot ordue aldaketie eranaki ona dala. Atsalde luziague eukitte, gauza gehixago egittera animau leike. Giro ona bada go, beti dago gauza gehixago egitteko aukerie.



RAUL ORTE
Langillie

Neuk, batez be, mendira jueteko aprobetxetan dittut atsaldiek. Lana normalez egitten dot, eta atsaldeko bostetatik aurrera libre eukitten dot, baiñe neguen ezin gauza handirik egin.



IÑIGO SEGUOLA
Ikaslie

Bai. Egune luziague da, eta nik neuk kirol apurtxo bat egitteko aprobetxetan dot. Negu partien azkar ilunketan dau, eta oin, eskertu egitten da. Animoz berdin egoten naz.



LEIRE MADINA
Ikaslie

Nik uste dot egune luziague izenda eguna hobeto aprobetxetan dala. Eguraldi onakin, kalien egoteko gogue eukitten da, eta oin, atsaldiek luziaguek dienez, ba, askoz hobeto.



ANE MAITE IRIARTE
Langillie

Ordue aldaketie oso erabaki ona dala uste dot. Antzeko gauzak egitten dittut, baiñe lehen illunetan egitten nittuenak oin egun argiz egitten dittut. Poz haundixague emuten dau.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK NORANZKO BI? Grupo San Juandik sarri igarotzen den irakurle batek jakinarazi digu Garibai etorbideetik Grupo San Juana, erreka bazterretik, sartzeko errepideak noranzko bikoitza duen edo ez zalantza duela. Behin baino gehiagotan autoak sartu eta irten guran izaten dira, igaro ezinik, eta itxura denez, ez dago inolako seinalerik handik sartzea ezta handik irtetea debekatzen duenik.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7	KULTURA /16	ZAHARRAK /19
Maiatzaren 1a, langileen eguna	Su Ta Gar-ekin berbetan	Egoitzetako salneurriak
Datorren eguaztean, langileen aldeko ekimenak egingo dituzte herrian, sindikatuek deituta.	Su Ta Gar taldeko Aitorrekin izan ginen gaztetxean, Eibarko taldearen gainean berba egiten.	Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta herriko zaharren egoitzek taberna salneurri berriak jarri dituzte.

ASTEKODATUA

35

URTE, REALA LEHENENGO MAILARA IGO ZELA

Duela 35 urte, Jesus Aranbarrik boleaz egindako gol bati esker, Realak lehenengo mailara igotzea lortu zuen. Partidua Aranbarriren debuta izan zen eta zortzi minutu faltan sartu zuen gola.

BESTE EKESANA

Intsumisioa giza- eskubideen aldeko eta giza- eskubideak errespetatzen dituen desobedientzia zibila izan da, bortxarik erabili gabe, eta hau bai dela ezinbesteko bereizgarri bat, eta baldintza horrekin testimonio hutsa ez da izan, sufrimendua soilik ez du ekarri: lorpen bat du, despenalizazioa. Ez dut uste intsumisioaren fenomenorik gabe horretara iritsiko ginenik (..) Desobedientzialariaren bidean bere aurka ari den norbait dago, bere duintasuna agerrarazten duena. Eta norbait boteretsu horren aurrean, desobedientzialariak, bere duintasuna mantenduz, hauxe ekarri behar du: ez du erabili behar, bere aurka erabiltzea nahi ez duena. Jarrera hori, bortxa ezarekin lotuta dago erabat"

NEKANE SAN MIGUEL
'ARGIA-LARRUN' /02-03-20

HERRITARREN BERBAK/ Itziar Ezpeleta



Gizakien askatasuna

Gaur, berriro tokatu zait idaztea. Erronka honetan beti aukeratzten dut nire burua aztertzea. Eta zergatik nik? Zergatik nire burua? Akaso nire ideiak eta pentsamenduak inori axola zaizkio? Eta nik zer egiten dut? Akaso nire denbora niretzat bakarrik ote da? Nire Arrasate maitea! Poliki-poliki, zuri ere nire eskuetan dagoena erakutsi nahiko nizuke.

Gaur, bi ideia bueltaka dabilta nire buruan. Nire ustetan, bi ideia horiek euren artean lotuta daude. Ez dakit gai izango naizen leku txiki honetan lantzen, baina saiatuko naiz.

Nik gizon batengan sinesten dut, Nazaretoko Jesusengan, hain zuzen ere. Haren bizitza eta hark erakutsi zizkigun zorionbideak utopikoak izan arren, askatasun biribil batera eramaten gaituzte. Baina haren zorionbideak, gaur egun ere, tresna egokiak bihurtzen dira gizakien askatasuna lortzeko.

Askatasuna! Jesus gurutzatu egin zuten. Nik esan dut gizon batengan sinesten dudala. Jaio, bizi eta hil egin zen, idatzita dago, horretan ez dago zalantzarik, baina horrela bukatu zen dena? Akaso nire barruan ez dut sumatzen zerbait falta dela?

Egun hauetan, gure kaleetan, komisariatik igaro ondoren gazte baten aurpegia zelan gelditu den ikus dezakegu. Duela urte batzuk, Benito Lertxundiren abesti batek hala zioen: *Zer egin dugu? Ezer ez. Zer egiten dugu?*

Elkar jo! Eta zer egingo dugu? Elkar hil. Kantu horretako hitzak bete egin dira.

Nire ustez, gure Euskal Herriak herri juduarekin antzekotasunak dauzka. Izan ere, egun berean, Aberri Eguna ospatzen dugu, bildotsa jaten dugu, eta abar. Herri judua herri zapaldua izan zen, eta orain, herri zapaltzailea bihurtu da. Dardarka daukat nire bihotza. Gure seme-alabak norantz doaz?

"Herri judua herri zapaldua izan zen, eta orain, herri zapaltzailea bihurtu da. Gure seme-alabak norantz doaz?"

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 26**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1... 943 79 22 26
- ZAPATUA, 27**
Irizar, Erguin 11... 943 79 12 39
- DOMEKA, 28**
Amezua, Santa Marina 32... 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 29**
Zabala, Zarugalde 42... 943 77 16 30
- MARTITZENA, 30**
Ruiz, Maala 31... 943 79 14 09
- EGUAZTENA, 1**
Español, Araba etorb. 17... 943 79 18 65
- EGUENA, 2**
Azkoaga, Ferrerías 1... 943 79 15 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea... 943 03 53 00
Igalatorioa... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak... 943 79 39 00
Emakumeak... 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea... 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak... 112
Gurutze Gorria... 943 76 55 76
DYA... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua... 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera... 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan... 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera... 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak... 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea... 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak... 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate... 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua... 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea... 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua)... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero)... 943 12 01 62
Gasa... 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak... 943 79 12 22
PESA... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza... 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron... 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

TREBATU ZURE EUSKARA
Zahar Berrik Alfabetatze ikastaroa antolatu du apirilaren 30etik ekainaren 20ra, martitzenetan eta eguenetan, 18:00etatik 20:00etara. Izena eman gaur AEDn, AEKn edo Udal Euskaltegian. Matrikula 35 euro izango da.

ZAHAR BERRIREKIN TXANGOIA
Zahar Berrik Ezkio eta Ormaiztegi txangoa antolatu du hilaren 27rako. 09:00etan irtengo dira, Arbolapetik, eta 18:00etan bueltan izango dira. Izena eman Zahar Berrin (AED).

KONTZERTUA ATERPEN
Gaur, egubakoitza, 23:00etan, Aterpe tabernan, Gasteizko Herf taldearen doinu elektronikoak.

LITERATURA MUNTAIA
Maiatzaren 3an (egubakoitza), 19:00etan, Amaiako hall-ean, ipuinak, poesiak, argazkiak, komikiak, antzerkiak eta bertsoak batuko dituen ekitaldia.

GAZTETXEAREN XI. URTEMUGA
Gaur, egubakoitza, 21:30ean, bakarrizketa. Bihar, 22:00etan, Perros Deshidratados, Venereal Disease eta R.A.S. taldeen kontzertua. Eta etzi, 19:00etan, El Corsal Desastre taldearen kontzertua.

AEDren AGENDA

AED-REN LAN-POLTSA
AEDk lan-poltza zabaldu behar du. AEDn lan egin gura baduzu, bidali curriculum Pablo Uranga 6ra.

AED-REN AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandeziak antolatu gura dituen. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta lantaldea osatu gura dute, hara joateko.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Orkatz eskaut taldeak paper batzeak egin zituen

Orkatz eskaut taldeak gogor lan egin zuen etxez etxe paperak eta kartoiak jasotzen. Duela hamar urte, 28.000 kilo paper batu zituzten. Gerora, papera birziklatzeko ohitura hedatu ahala, paper erosleek gutxiago ordaintzen zuten, eta horrela, eskautekoek papera batzeari utzi zioten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Perpeziñua"



Zerbait egiteko erraztasune, trebetasuna.
-Eskulanetarako perpeziño aundixa dauka Julenek.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOIA Eguaztena, 17	2°C
MAXIMOIA Martitzena, 23	24°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 17	20 °C	2 °C	0,5 l/m²
Eguena, 18	16 °C	8 °C	0,2 l/m²
Egubakoitza, 19	20 °C	5 °C	- l/m²
Zapatua, 20	23 °C	3 °C	- l/m²
Domeka, 21	24 °C	2 °C	- l/m²
Astelehena, 22	24 °C	2 °C	- l/m²
Martitzena, 23	24 °C	2 °C	- l/m²

Berarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Umeak izateagatik laguntzak berbagai

Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak emango dizkie umeak izaten dituzten gurasoei, eta hori gai hartuta iritzia eskatu dugu: *Nahikoa dira dirulaguntza horiek?* Arantza Lejarraga, Mercedes Iñarra eta Arantza Mendaroketa -hirurak ere amak eta irakasleak- batu ditugu. Zapatuan eta domekan berriro eskainiko dugu tarte hori. Bestalde, Putz aldizkarikoekin egon gara, 14. zenbakia atera dute-eta. Diego Martiartu eta Jon Etxebarria izan dira gurean.

Maiatzaren Lehena, Langilearen Eguna

Datorren martitzenean, Maiatzaren Lehena izango dugu hizpide. Hori dela eta, hainbat sindikaturi iritzia eskatuko diegu. Bestalde, eguaztena jaieguna dela eta, ez gara zuzenean izango, baina elkarrizketak eskainiko dizkizuegu goizean: Amaia Murumendiaraz arrasatearrari egindako elkarrizketa. Amaiak Madrilen egiten du lan, A3 telebista katean, publizitate sailean. Publizitatea telebistan zelan saltzen duten kontatuko digu.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 MIR

MARTITZENA
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Hi bizi hadi

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen

EGUENA
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Gailurretik/Mikelenea

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Su Ta Gar-ek gaztetxea lepo bete zuen

Arrasateko gaztetxearen 11. urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi egiten ari dira. Hala, joan den egunean, Su Ta Gar talde eibartarra izan zen Arrasateko gaztetxean.

Hasiara baten kontzertua asteburuan izan behar bazen ere, egutegi kontuagatik kontzertua eguenera aurreratzea erabaki zuten, baina antolatzaileak jendea joango ez ote zen beldur ziren. Beldur horiek gutxi iraun zuten, kontzertua hasi aurretik sekulako jende ilara zegoen-eta gaztetxe kanpoan. Guztira, 650 sarrera saldu zituzten, eta jende askok ezin izan zuen gaztetxera sartu, lekurik ez zegoelako.

Pabilioi berriak Roneo parean

Egunotan, Arrasateko Roneo lantegiaren aurrealdean industria pabilioiak egiteko lurra prestatzen ari dira. Pabilioi horien promotoreak Arregi Gestion, Roneo eta UCEM eta Ortubai izan dira.

Hiru enpresa horiek eskatu zuten leku horretan industria pabilioiak eraikitzeke lizentzia. Ia 4.000 metro koadroko lursaila da eta hiru gunetan banatuko dute. Oraindik ez dute zehaztu pabilioi horiek ze jardunetarako erabiliko dituzten. Lanak amaitutakoan zehaztuko dute hori.

Aurre-erretiratu eta alargunak Madrilén

Arrasateko aurre-erretiratu eta alargunak, ibarrekoekin batera, Madrilén egin zen kale agerraldian izan ziren. Arrasatetik eta Oñatitik berrogei bat lagun animatu ziren Madrileraino joaten, hantxe izan zen manifestazioan pentsio hobeak eskatzeko asmoz.

Guztira, bost mila lagun inguru elkartu ziren Madrilgo kale agerraldian. Euskal Herriko, Kataluniako eta Valentiako manifestariak egoteaz gain, Madrilgo jende asko ere animatu zen. Euren egoera hobetzea eskatu zuten.



Traumatologia mintegia Arrasaten

Euskal Herriko Traumatologo Elkarteak mintegia egin zuen zapatu goizean Arrasaten. Gesalibar auzoko San Joan de Dios Ospitalean egin zituzten topaketak, eta Arrasatera gerturatutako traumatologoek, besteak beste, sorbalda lesioak izan zituzten hizpide.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Gobernu eta lan kontuak

Bazter asko astindu dituzte Frantziako hauteskundeetako lehenengo berriek. Izan ere, Le Pen-en taldeak -ultraeskuindarren taldeak- gorantz egin du nabarmen. Ultraeskuindarrek ez dute onurarik ekarriko, ez horixe, baina ezta ere zentro itxurarekin edo beste edozein mozorrorekin janzten diren eskuindarrek.

Bestalde, Maiatzaren 1a hurbil daukagu. Betiere, sindikatuak langileen eta, bide batez, gizateriaren aldeko aldarrikapenak egingo dituzte. Langileen eskubideak ez doaz hoberrantz, ez horixe. Aldi Batera-ko Enpresek ere hor jarraitzen dute, enpresek euren zerbitzuak kontratatzen dituztelako, noski. Bestela, ez lukete gehiago iraungo.

Eta enpresa askotan, gehienetan ez esatearren, aldi bateko kontratuak egiten dituzte. Beraz, lanean behin-behinekotasun egoera izatea salbuespena dugu.

Lan-istripuak ere ez dira gutxitzen, eta azkeneko urteetan gehituz doazela dirudi. Are gehiago, garrailarien Hiru sindikatuaren aldarrikapena ere gogoratu dut. Haien esanetan, bidean hiltzen diren garrailariak ere lan-istripuan hiltzen dira, eta ez zirkulaziokoan.

ASTEKO IRUDIA




UBANE MADERA

ZUBI BERRIAREKIN, URBANIZAZIO BERRIAK LOTU

Aste honetako irudia lasai asko izan zitekeen eguraldi aldaketa nabarmena. Hala ere, beste irudi berezi bat ekarri dugu orrialde hauetara. Martitzen arratsaldean, Cerrajerako etxe berriak eta Udal Parkinga lotuko dituen zubia jartzen hasi ziren. Lan horiek ikusmira handia sortu zuten herritarren artean.

Hau idazteko unean, eguaztenean, zubia bukatzeko lanean jarraitzen zuten. Zubia 18,40 metro luze da eta Finlandiako pinu gorriarekin eginda dago. Zubiaren zoru egiteko, berriz, teka motako egurra erabili dute. Zubiaren lanak Cerrajerako etxeren urbanizazio lanen barruan daude. /I.B.

PUB HAIZEA



ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

ELKARRIZKETA

ADOLFO PARRA/ETORKINA

“Arrasatera etortzea gomendatu ziguten, herri ona eta industrializatua delako”

UBANE MADERA

Adolfo Parrak 28 urte ditu eta kolonbiarra da, Medellin hirikoa, hain zuzen ere. Orain dela sei hilabete etorri zen Arrasatera, jaioterriko indarkeriatik ihesi, lan bila. Eta Arrasateko jende mordoak ezagutzen du dagoeneko Adolfo, azoka txikian fruituak saltzen ibiltzen da-eta. Hemen oso ondo integratzen ari dela kontatu digu Adolfo:

Orain dela oso gutxi etorri zinen, baina oso ondo egokitu zara...

Bai. Lanean ari naiz, azoka txikiko fruta denda baten, egunkariak ere banatzen ditut goizean eta pertsona nagusi bat ere zaintzen dut. Horrez gainera, etxebizitza ere badut.

Baina etorri ginenean, bagenuen zerbait. Amaginarreba Arrasaten bizi zen eta hark zuen etxebizitza. Hasieran, bi taldetan banatu ginen, eta jende asko bizi ginen etxe bakarrean. Gure kasuan, esate baterako, emaztea, koinatua eta bion lagun bat etorri ginen Kolonbiatik.

Baina orain, ondo gaude.

Hortaz, Arrasateko gizartearen integratuta zaude?

Bai. Ondo integratuta nagoela uste dut, eta orain arte dena ondo doa.

Euskaraz apur bat ere berba egiten ei duzu...

Bai, apurtxo bat. Zaintzen dudak gizonak erakusten dit eta ahalik eta gehien ikasten ahalegintzen naiz. Lau hilabete eta erdi daramatzat harekin eta zenbakiak, fruituen izenak eta berba solteak erakutsi dizkit: *etorri hona, begiratu ondo dagoen, ondo ibili eta gutxi gastatu...* kalean erabiltzeko esaerak dira eta uste dut gerora ere oso baliagarriak izango direla niretako.

Zelan hartu zaituzte hemen?

Jendeak oso ondo hartu nau. Laguntza handia eman didate eta adiskidetasun handia erakutsi. Kanpotik etorritako etorkin moduan, beste inor ezagutzen ez duen etorkin moduan, uste dut, bereziki, jende nagusiak oso ondo hartu nauela herrian.

Zailtasun bereziren bat izan duzu?

Bada, oraingoz ez. Dena oso ondo irtetzen ari zait.

Zer lortzea gustatuko litzazuke hemen?

Gutziz integratzea gizarte honetan eta askoz ere lasaiago egon ahal izatea. Dena dela, nik usten dut dena iritsiko dela, denborarekin; gauzak gertatzen diren neurrian, dena iritsiko da.



UBANE MADERA

“Kanpotik etorritako etorkin moduan, jende nagusiak oso ondo hartu nauela uste dut”

Zuk espero zenuen modukoa da hau?

Kolonbian hona etortzeko mapa hartu genuenean, ikusi genuen Espainiako gunerik industrializatua Bilbo zela. Ez genekien Bilbo non zegoen, entzunaz ezagutzen genuen bakarrik, baina besterik ez; dena dela, hona etorri gura genuen, lana lortzeko. Bazirudien ona zela, eta orain arte, behintzat, ona izan dela ikusi dugu.

Eta zelan iritsi zara Arrasatera?

Arrasatera etortzea gomendatu ziguten; Arrasate herri ona eta industrializatua zela esan ziguten, hemen bazegoela lana.

“Ni hemendik joateko, bota egin beharko naute, indarrez atera beharko naute”

Eta gu lan bila gentozenez...

Zelako etorkizuna espero duzu?

Badirudi ona datorrela. Umetxo baten zain gaude (ez dakigu neska edo mutila); espero dugu umetxoa ondo etortzea eta gauzak ondo irtetea.

Hemen geratzea espero duzu?

Bai, bai, dudarik ez. Ni hemendik joateko, bota egin beharko naute, herritik indarrez atera beharko naute.

Oso ondo sentitzen naiz hemen; jendeak oso ondo hartu nau eta ez dut uste hemendik joango naizenik.

Edozelan ere, zure jaiote-

“PPko gobernuak etorkinen alde edo kontra ezarritako legeak ez du behar bezala funtzionatu”

rritik igarriko duzu zerbait faltan ...

Bai, ama eta, bereziki, hango jendea. Pertsonok beti sumatzen dugu jendearen falta, han utzitako gauzen falta... Gainerakoa berdintsua da: hango lurra eta hemengo berdintsuak dira. Desberdintasun bakarra, hango askoz beroagoa dela eta hemengo askoz hotzagoa.

Arrasatetik gustuko duzun zerbait...

Jendea, dudu barik. Oso ondo hartu eta zaindu naute.

Eta gustuko ez duzuna?

Hotza. Hotz handia egiten du hemen, eta oraindik ez dut hemengo uda bizi izan.

Etorkin moduan duzun esperientzia kontuan hartuta, zer gomendatuko zenieke beste etorkin batzuei?

Lehenengo, jendearekin integratzen saiatu behar direla. Jendearekin ondo portatu behar dira, jendea eman egin behar zait, eta, horrela, poliki-poliki ordaintan gauza bera emango die.

Bigarren, gu gure herrian horretako protesietan adituak ginen, baina ez zegoen lanik; eta hemen badago lana. Akaso etorkizuneari gure lanbidean autonomo egin ahal izango gara.

Hirugarren, norberaren herrian ondo egonda, ez da handik irten behar. Baina norberaren herrian gustura ez badago, deseroso badago, ospa egin behar du. Orduan, beste alternatiba batzuk bilatu behar dira, askoz ere etorkizun hobea lortzen lagunduko duten alternatibak.

Zer iruditzen zaizu Espainiako gobernuak etorkinen gainean ezarri duen legea? Eta Eusko Jaurlaritzak zuekin duen jarrera?

Oso gutxi dakit etorkinen gaineko legeaz. Baina egunkarietan bitartez jakin izan dudana arabera, gobernu zentralak, edo hemen esaten den moduan, PPko gobernuak, etorkinen alde edo kontra ezarri duen legeak ez du behar bezala funtzionatu. Ni etorkina naizenez, niretako ere ez da baliagarria lege hori.

Eusko Jaurlaritza, berriz, malguagoa da gurekin.

Zein izango litzateke politikarik egokiena, zure ustez?

Ez dakit esaten, hori ez dago nire esku. Baina ni hemen bizi banaiz, jendea ezagutzen badut eta jendeak ni ezagutzen banau, herri honetan askoz hobeto integratzeko erraztasunak eman beharko litzateke gobernuak; guztiondako hobea izango litzateke, hemengo jendearendako, kulturarendako... Bizi izateko legeak eskatzen dituen agiriak eman beharko litzateke.

Itzuliko zara sekula Medellinera?

Itzuliz gero, turista edo bistari moduan itzuliko naizela uste dut. Oporretara joango nintzateke; oraindik ere gauza mordoak ditut han eta, horrez gainera, familia ere badut; hortaz, bai, bueltatuko naiz hara.

Zerbait gehiago esan gura baduzu...

Niretako oso garrantzitsua da zuek ni kontuan hartu izana. Berdin dio elkarrizketa txiki baterako edo handi baterako izan, niretako oso ona da; izan ere, pertsona moduan kontuan hartzen naiz zue. Eskerrik asko.


Langileen eskubideak defendatuko dituzte Maiatzaren 1ean

UBANE MADERA

Sindikatuak mobilizazioak iragarri dituzte datorren eguaztenerako. Urtero legez, Maiatzaren 1ean langileen eskubideak gogoratuko eta aldarrikatuko dituzte. Besteak beste, 35 orduak, berdintasuna eta langabeziaren gaineko legea izango dira berbagai.

UGTk, CCOOk eta USOk Donostia aukeratu dute langileen eskubideak aldarrikatzeko. Guztion-dako lana, langileendako eskubide guztiak eta 35 orduko lan-astea ezartzea eskatuko dute, bereziki. UGTko ordezkariak, Salvador Peñak, nabarmendu gura du gaur egun "lehen eta bigarren mailako lanpostuak daudela, eta lan-baldintzak eskasak direla". Horrekin batera, langabeei babes handiagoa ematea ere eskatu du. CCOOk bozeramaile Enrique Marcosek, berriz, lan egonkorra eta sexuen arteko berdintasuna eskatu ditu, baita 35 orduko lan-astea ere; haren esanetan, "horrekin aurrera egiten ari dira, baina oso motel".

ELAk, berriz, Bilbon egin du mobilizazio deia. ELAko ordezkari Unai Martínezek adierazitako moduan, "kolektibo diskri-



ARTXIBOA

Emakumeak, gazteak eta etorkinak gogoan izango dituzte sindikatuek.

minatuen aldeko leloak" erabili dituzte. Horrela, hiru salaketa nagusi egingo dituzte: emakumeen, etorkinen eta gazteen egoerak. Edozelan ere, Unai Martínezek gaineratu du errebindikazioekin batera festa ere izango dela Bilbon.

LABek, berriz, Iparraldean eta Hegoaldean deitu ditu mobilizazioak. *Euskal esparru ekonomiko eta soziolaboralaren alde* lelopean, burujabetzaren aldeko

apustua egingo du sindikatu aberzaleak, Jon Alustiza ordezkariaren esanetan.

Eta ESK-k, globalizazio neoliberalaren kontra eta eskubide sozialen alde egingo du. Halaxe adierazi digu Paco Morales ESKko kideak. PPko gobernua ezarri duen langabezia legea ere salatu dute eta emakumeen, erretiratuen, etorkinen eta gazteen egoera latza. Hori dela eta, erresistentzia aldarrikatu dute.

Lokalak etxebizitza moduan erabiltzeko baimena luzatzea

UBANE MADERA

Herriko lokalak etxebizitza moduan erabiltzen uzten duen udal ordenantza luzatzea proposatu dio Hirigintza batzordeak osoko bilkurari. Udalak 100 baimen eman arte edo 2004ra arte luzatuko dute baimena, betiere, osoko bilkurak onartzen badu.

2000ko ekainaren 22an, Udalak beste ordenantza bat onartu zuen. Horren arabera, zilegizkoa da herrian dauden lokalak aldatu eta etxebizitza moduan erabiltzea.

Ordenantza horrek bi urteko epemuga izango zuela erabaki zuen orduan Udalak; edo bi urteak bete barik, lokalak etxebizitza izateko 100 baimen ematen dituztena arteko epemuga.

Laster, arau hori onartu zutela bi urte beteko dira. Eta orain artekoa aztertu eta baloratu eta gero, Hirigintza batzordeak erabaki du ordenantza hori luzatu egin behar dela. Horrela, osoko bilkurari proposatu dio arauaren epea beste bi urtez luzatzea edo, bestela, baimen kopurua 100ekoa izan arte ordenantza horrek indarrean segitzea.

Gaia atzo aztertzeotan ziren hileroko osoko bilkuran; baina albiste hau idaztean batzarra egin barik zegoenez, ez dakigu onartu duten edo ez.

ESKAERAK

Araua indarrean egon den bi urteotan, 56 baimen eskaera jaso ditu Arrasateko Udalak. Horietatik, 39 onartu ditu. Hortaz, Arrasaten, lehen lokalak ziren ia 40 lekutan, gaur egun, herritarrek bizi dira. Etxebizitza bihurtzen diren lokalak jeneralean komertzialak izaten dira edo solairu artean sortzen diren lekuak.

LABUR

Sindikatu guztiak batu dira Israel egiten ari den eraso geldidakin eskatzeko

EHNE, ELB, ELA, CCOO, LAB, UGT, ESK, EILAS, LSB-USO, HIRU eta EGAS sindikatuak elkartu egin dira israeldarrak Palestinan egiten ari diren erasoaren kontra. *Eraso israeldarra gelditu! Lurra, bakea, estatua Palestinarentzat* lelopean, gaur, kale bilkura egin dute Portaloian. Israeldar erasoaren amaiera, Israelgo armada Palestinako lurralde okupatuetatik erretiratzea eta Palestina-ko estatu burujabe eta independente aldarrikatzea eskatu dute. Horrekin batera, Palestinako Aginte Nazionalaren zilegizkoa dela aitortzea, Nazio Batuek hartutako erabakiak betetzea, Nazioarteko Misio bat bidaltzea eta hango bake eta segurtasunerako negoziazioei berriro heltzea ere eskatu dute sindikatuek.

Hirigintzarekin, hezkuntzarekin eta jaiekin lotutako gaiak landu zituen udalbatzarra

Hilaren amaiera aldean ohi duen moduan, udalbatzarra osoko bilkura egin zuen atzo, eguena. Hamar gai zituen aztergai. Tartean, lokalak etxebizitza moduan erabiltzeko aukera, Udaleko Hezkuntza Kontseilu Arruntaren arautegia behin betiko onartzea, eta iazko aurrekontuko zenbait likidazioen berri ematea. Horrekin batera, eta sanjuan jaiei begira, zezen ikuskizunak eta entzierroak antolatzea proposamena ere mahai gainean izan zuen udalbatzarra.

Edozelan ere, albiste hau idatzi genuenean, oraindik osoko bilkura egin barik zegoen; hortaz, ez dago jakiterik zein erabaki hartu duten zinegotziek.



Egitarau zabala San Andresko jaietan

Datorren martitzenean hasi eta maiatzaren 5era arte jaietan murgilduko dira San Andres auzoan. Egitarau luze eta zabala izango dute aukeran. Adibidez, martitzenean bertan, *drag queen* talde bat arituko da auzoko tabernak eta bazterrak alaitzen, eta gauza bera egingo dute zapatu gauean ere. Egubakoitzean, berriz, Egan taldea arituko da gaua alaitzen.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia.1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



Danona
KARROZERIAK

Konponketak txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ELKARRIZKETA

JUAN LUIS ANASAGASTI/TENOREA

“Bosnian milioi bat mina baino gehiago daude lurperatuta”

UBANE MADERA


Juan Luis Anasagasti tenore bilbotarrak eta Jaime L. de Butron piano jotzaile getxotarrak Bosniako umezurtz etxe baten aldeko kontzertua emango dute. Hori aitzakia hartuta, Juan Luis Anasagastik hau kontatu digu Bosniari buruz:

Giza laguntza ematen duen Maitasun GKEren bitartez hasi zineten lanean?

Bai. 1995ean hasi ginen, Bosniari laguntzeko asmoarekin, gerra zibil bortitza jasan berri zuen-eta. Gerra hark oso ondorio gogorak utzi ditu, bereziki, Sarajevon, hiru urtez setiatuta egon zen-eta. Hango enbaxadoreak esan zidan setio horretan hamar urtetik beherako 1.500 bat ume hil zirela. Gainera, gerren ondorioz umezurtz mordoia izan ohi da; kontuan hartu behar da gerra garaian emakume ugari bortxatu zituztela han. Horrek guztiak kezkatuta, erakundea sortu genuen eta erabaki genuen umeekin lotutako zentro bati lagunduko geniola. Sarajevoko umezurtz etxe baten gaineko informazioa eman ziguten, eta hari laguntzen hasi ginen. Bjelave du izena. Ordutik hona kontzertu ugari eman dugu, erakusketak antolatu, janaria batu... Umezurtz etxeaz gain, 98tik hona zaharren eta ezinduen etxe bati ere laguntzen ari gara, Mostarren.

Zelakoa da Bjelave?

Batez beste, 120 bat ume izaten ditu; %70, bi urtetik beherakoak. Izan ere, sei-zazpi urte dituztenean, beste etxe batzuetara eramaten dituzte. Beti falta zaie zerbait. Etxea bera ondo dago, bai-



UBANE MADERA

na eguneroko esnea, haur-oihalak, berogailua neguan... falta zaizkie. Ume gehienak abandonatutakoak dira, %70-%80.

Zein da Bosniako egoera?

Hondamendia. Nazioarteko laguntza urria izateaz gain, azpiegitura handiak konpontzeko erabili dute, (errepideak, urtegiak...). Ondorioz, bizilagunek ez dute ezer ere. Horrez gain, Bosnian

milioi bat mina baino gehiago daude lurperatuta. Orain dela urtebete, Sarajevoko parke baten hiru ume hil ziren mina baten ondorioz. Era berean, hangoek esaten dute Bosniako arazoa ez dela konpondu eta edozer gerta litekeela berriro ere.

Zerbait gehitu gura duzu?

Jendea kontzertura joan dadila, polita izango da-eta.

LABUR

Bosniako umezurtz etxe baten aldeko kontzertua San Andres parrokian

Datorren maiatzaren 3an, egubakoitzean, Bosniako Bjelave izeneko umezurtz etxearen aldeko kontzertua izango da Arrasateko San Andres parrokian, 20:00etatik aurrera. San Andres parrokiako batzordeak antolatuta, Bilbotik etorritako Juan Luis Anasagasti tenoreak eta Jaime L. de Butron piano jotzaile getxotarrak pieza batzuk interpretatuko dituzte. Eurekin batera, Arrasateko Goikobalu Txiki eta Goikobalu Gazte taldeetako abeslariak ere parte hartuko dute, Rakel Murgiondoren zuzendaritzapean. Kontzerturako sarrera doan izango da. Kontzertuaren ostean, Bosniaren gaineko hitzalditxo bat egingo dute, hango egoeraren berri emateko. Jakina, lagundu gura dutenendako, itsulapikoa ipiniko dute.

Batutako dirua Maitasun gobernuz kanpoko erakundeak biderratu du, umezurtz etxeak dituen beharretan laguntzeko.

Kartoiak dagozkien egunetan ateratzeko eskatu die Mankomunitateak saltokiei

Mankomunitateak aditzera eman duenez, arazoak eragin dituzte dendariak zaborretara ateratzen dituzten kartoiak. Mankomunitateak adierazi du behar ez diren egunetan eta esandako ordue-tatik kanpo ateratzen dituztela kartoiak. Ondorioz, askotan, kartoiak kalean batu barik geratzen dira, eta beste batzuetan, edukiontzietako zaborrarekin nahasten dira, eta alferrik galdu.

Hori dela eta, kartoiak martitzenetan eta egunetan ateratzeko eskatu die Mankomunitateak herriko dendariei. Baita 19:00ak baino lehenago ateratzeko ere. Baina ez goizean eta ezta arratsaldeko lehenengo orduan. Horrekin batera, kartoiak zaborretik bereiztea ere eskatu die Mankomunitateak dendariei, hau da, zaborra uzteko edukiontzietatik gertu ez uztea; bestela, kartoiak alferrik galtzeko arriskuan dago-eta.

Lan-osasunaren aldeko mobilizazioak egin dituzte, zenbait sindikatuk deituta

Batetik, ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek deituta, eta bestetik, CCOO, UGT eta USO sindikatuek deituta, mobilizazioak egin dituzte gaur eta atzo. Izan ere, etzi, apirilaren 28an, Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguna da, eta sindikatuen ustez, enpresetan ez dira langileen osasuna eta segurtasuna babesteko neurriak betetzen. Hori dela eta, gaur, sindikatu horiek guztiak deituta, ordubeteko lanuztea egin dute zenbait enpresatan, 11:00etatik 12:00etara, hain zuzen ere.

Lehenengo lau sindikatuek, oro har, lantoki guztietan prebentzio plan osoak abian ipintzea eskatu dute, bereziki, ergonomia, gai kimikoak eta arrisku psikosozialak kontuan izango dituztenak; baita lanak eragindako gaixotasunak aitortzea (giharretako, buruko edo tendoietako gaitza...) eta langileen osasun eta segurtasun arazoei aurre egiteko baliabide ekonomikoak bideratzea ere. CCOO, UGT eta USO sindikatuek ere bat egin dute aldarrikapen horiekin, eta horrez gain, lanean dagoen segurtasun eza salatuta dute; eta gogorarazi dute iaz 116.378 lan-istripu izan zirela eta 370 larriak izan zirela; eta istripuen ondorioz, 98 langile hil zirela.

**URONDO**

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



GAZTEEN DANBORRADARAKO GAZTEAK BEHAR

San Juan jaietako danborradarako hilabete bi geratzen dira oraindik, baina SUDCeckoek gazteen danborradarako umeak animatzea eskatu gura dute. Danborradan parte hartu gura dutenek apirilaren 29an edo 30ean eman beharko

dute izena SUDCecko egoitzan. Bi hilabeteotan gazteek entseguak egingo dituzte, danborrada egunerako gertu egoteko. Azken urteotan gazteen danborradak behera egin du, eta horrela, ohitura onak ez galtzeko ahalegina eskatu dute SUDCeckoek.



PARTIDUA, PALKOTIK

Joan den domekan, Arrasateko Imanol Etxebarria Athletic Club tadeko zaleak San Mamesko palkora gonbidatu zituzten. Ordezkarri moduan Eugenio Uribarren eta Eloy Marteatxe joan ziren, eta ederto pasatu zuten, nahiz eta taldeak galdu. Hurrengoan, Teresa Rivero futbol zelaira joan beharko dute, Imanol Etxebarria han dabil-eta.

GASTEIZKO TXIKIPARK-EN

Arrasateko Txatxilipurdiko hamahiru neska-mutiko Gasteizko Txikipark-en izan ziren, begiraleekin batera. Gasteizko Txikipark Bergarakoa baino zertxobait handiagoa da, hortaz, badago non jolastu. Gaztetxoek bikain pasatu zuten Txikipark-en, batez ere, puzgarrietan. Gaztetxoek gainera, begiraleek ere bikain pasatu zuten, eta hurrengo txangoa nora eta noiz egin pentsatzen hasi dira dagoeneko.



ALTAMIRAKO JAIK

Altamirako jaiak ospatu zituzten joan den asteburuan, eta argazkian azaltzen den moduan, giro bikaina egon zen. Jaiak zapatuan ospatu zituzten. Goizean hasi zituzten jaiak, suziri jaurtiketarekin. Eta gaztetxoak izan ziren eguneko lehenengo protagonistak. Arratsaldean, berriz, auzoko erretiratuek omenaldi beroa jaso zuten. Lore Gazteak taldeak girotu zuen omenaldia. Gauean, Txinparta musika taldearen eskutik, musika izan zen nagusi. Guztira, ehun bat lagun elkartu ziren Altamirako jaietan.

ATLETISMOA

Arrasate A taldea bigarren izan zen Gipuzkoako Txapelketan

Arrasate B taldea laugarrena izan zen Ordizian jokatu zen infantil mailako txapelketan

XABIER URZELAI

Arrasateko atleta gazteek maila polita erakutsi zuten joan den zapatuan jokatu zen infantil mailako Gipuzkoako Txapelketan. Talde onena Ordiziakoa izan zen, eta Arrasateko talde biak bigarren eta laugarren postuan geratu ziren sailkapen nagusian.

Arrasateko atletismoko talde biak ondo ibili ziren, eta Arrasate A taldeak txapelketako bigarren postua eskuratu zuen. Eta gutxi-gatik ez zen lehena izan, Ordiziak 87 punturekin amaitu zuen eta txapelketa, arrasatearrek baino bi puntu gehiagorekin, hain zuzen ere. Arrasateko atletek ez dute entrenatzeko behar bezalako instalaziorik, eta horrelako lorpenek meritu handiagoa dute.

HIRU LEHENENGO POSTU

Arrasate A taldean zazpi atleta ibili dira, eta emaitza hauek lortu dituzte: hiru mila metroko lasterketan, Markel Blanco lehena iritsi zen helmugara (9'56''); laurogei metroko hesi-lasterketan, beste mondragoetar bat nagusitu zen, Ander Perez de Arenaza, hain zuzen ere, 14'36'' denbora-



ARRASATE PRESS

Arrasate A eta B taldeetako atletak asteburuan Ordizian jokaturako proban.

rekin; txandakako lasterketan ere arrasatearrek izan ziren azkarrenak: Ander Trojaolak, Lander Errastik, Jon Ander Amadok eta Beñat Barberenak osatu zuten Arrasateko laukotea.

Altuera-jauzian, Beñat Barberenak 1,48 metroko jauzia egin zuen, eta bigarren geratu zen; luzera-jauzian, Lander Errastik bigarren izan zen, 4,82 metroko markarekin; 500 metroko laster-

ketan, Jon Ander Amadok bronzetza eskuratu zuen, minutu bat eta hogeita bost segundorekin; 80 metroko lasterketan, Angel Trojaolak hamaika segundo eta erdi behar izan zituen, eta laugarren izan zen; pisu-jaurtiketan, Javi Sierrak 9,60 metroko marka egin zuen, eta laugarren sailkatu zen.

Oraingo asteburuan, bestalde, Jonathan Pérez Basaurin izango da, pertikako proban.

Josu Tornay arrasatearra bigarrena da Arrasate Hiria Xake Txapelketan

XABIER URZELAI

Bi jardunaldi bakarrik jokatu dira, eta Josu Tornay arrasatearra bigarrena da sailkapenean. Joan den egubakoitzean, Tornayk berak eman zuen sorpresa handiena, txapelketa-kofaboritoari irabazita.

Borja Zamarbide hamalau urteko gaztea da txapelketako liderra. Iruindarrak orain arte jokaturako bi partidak irabazi egin ditu, eta zelan, gainera. Joan den egubakoitzean, xakelari gazteak Gerardo Fernández bilbotarra izan zuen kontrario, eta pieza beltzekin iruindarra erraztasunez nagusitu zen. Jokalari gazte hori da orain arte jokatu diren bi puntuak eskuratu dituen bakarra. Puntu eta erdirekin Josu Tornay, Luis Ortega eta Karen

San Pedro bilbotarra daude; lehenengo biak Arrasate San Andres Xake Taldeko jokalaririk dira.

JOSU TORNAY, BIGARREN

Katalunian jaiotako Josu Tornay arrasatearra dago bigarren sailkapenean. Tornayk berak eman zuen jardunaldiko sorpresa, Cristobal Limeres gernikarrari irabazita. Gernikarra *frantsesa* batekin ahalegindu zen, baina Tornay ez zen kikildu, eta ezohikoa den jokaldi batekin bikain erantzun zion arrasatearrek. Garaipen horri esker eskuratu du arrasatearrek bigarren postua.

Luis Angel Ortégak, bestalde, *chigorin* defentsa erabili zuen Jose Javier Garrido bilbotarraren kontra, eta momentu txarrak pasatu bazituen ere, partidari buelta eman eta etxeko taldean jokatzeko duen lasartearrak ira-

bazi egin zuen partida. Bestalde, Karen San Pedro bilbotarrak ez zion inongo aukerarik eman Isidro Ruizi, eta arrasatearrek bigarren partida galdu zuen.

Eta bukatzeko, Jose Manuel Hernandok eta Jesus Mari Agirretxek berdinketa egin zuten. Nahiko partida ezohikoa jokatu zuten Hernandok eta Agirretxek, eta posizio zailtara iritsi ziren xakelari biak. Hernando arrasatearra aditua da horrelako posizioetan jokaldi onak egiten, baina denbora behar zuen, eta partida amaitzeko lau segundo bakarrik geratzen zirenean, arrasatearrek berdinketa eskatzea baino ez zuen izan.

Gaur arratsaldean hirugarren jardunaldia jokatu da eta Karen San Pedro eta Josu Tornayren arteko zeingehiagoka da azpimarragarrietako bat.

ESKUBALOIA

Arrasateko taldeek ez zuten partidu bat bera ere irabazi Kopako lehen jardunaldian

Gazte mailako taldeak eta senior mailako bi taldeek ezin izan zuten Kopa txapelketako lehen jardunaldian punturik eskuratu. Gazte mailakoek Euskal Ligan ibili den Pulpo taldearen kontra jokatu zuten, eta etxekoek 15-35 galdu zuten.

Arrasateko senior mailako talde biek lehen mailan ibili diren taldeen kontra jokatu zuten asteburuan, eta nagusitasun hori argi nabaritu zen kantxan. Bigarren taldeak 19-27 galdu zuen Musakolan, Egia taldearen kontra, eta lehenengo taldeak 27-37 galdu zuen Iturripen, Zarautzen aurka jokaturako norgehiagokan.


SASKIBALOIA

Kenci Arrasate taldeak liderraren kontra jokatu du zapatu arratsaldean Iturripen

Arrasateko saskibaloia taldea Deustuko La Salle taldeari ezustea ematen saiatuko da bihar, arratsaldeko seietaik aurrera. Iker Zubiriaren mutilek ez dute lan erraza izango, liderrak partidu bakarra galdu du eta. Joan den asteburuan, bestalde, Iker Zubiriaren mutilek ezin izan zuten hirugarren garaipena segidan eskuratu.

Mondragoetarrek ondo hartu zioten neurria Nafarroako Erro Eugi taldeari, baina minutuek aurrera egin ahala, arrasatearrek behera egin zuten, eta nafarrek, partidua berdintzeaz gainera, irabazi egin zuten, hamar puntuko aldearekin: 93-83.

FOTOKIROLA



Bihar, gimnasia nagusi Uarkapen

Bihar, zapatua, gimnasia erritmikoko B mailako Eskola Arteko Txapelketa jokatu da Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Zapatuko txapelketako bigarren fasea izango da, eta alebin, infantil eta kadete mailako gimnastak arituko dira.

Zapatuan, Gipuzkoako herri askotako gimnastak arituko dira; guztira, 50. Arrasateko taldeari dagokionez, hamaika neskatila izango dira. Alebin mailan, Alaitz Ajuria, Ainhoa Baltzategi, Leire González, Lorea Medina eta Maite Sánchez bakarka arituko dira, sokarekin.

Infantil mailan, Amaia Albes, Paula Hériz, Leire Hernández, Maite Otxandiano, Olatz Undagoitia eta Naiara Zabarte taldeka eta bakarka arituko dira. Taldeka, pilotarekin eta uztalarekin egingo dute ariketa, eta bakarka, uztalarekin arituko dira. Finala Zarautzen jokatu da, maiatzaren 18an. /X.U.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

PILOTA

Gaur hasiko dute Arrasateko pilotariak Herri Arteko Txapelketa

Mondragoeko pilotariak Hernanin jokatu dute gaur, gaueko hamarretatik aurrera

XABIER URZELAI

Orain arteko txapelketetan fin ibili ez badira ere, herriko pilotariak denboraldiko txapelketa erakargarriena hasiko dute gaur, egubakoitza. Herri Arteko Txapelketako lehenengo kontrarioa Hernani izango da, txapelketa irabazteko faboritoetako bat.

Ezin esan arrasatearrek zortea izan dutenik, herri arteko lehenengo norgehiagoka txapelketako faboritoetako baten kontra jokatu beharko dute-eta. Hernanin oso bikote onak ditu kategoriaz guztietan, eta lehenengo kanporaketan kalera ez joateko gogor borrokatu beharko dute mondragoetarrek.



Herri Arteko Txapelketan, kadeteak, gazteak eta seniorrak arituko dira.

BIKOTEETAN, HAINBAT ALDAKETA

Mauri Zubillagak erabaki du dagoeneko zeintzuk arituko diren Herri Arteko Txapelketan Arrasate taldean. Kadete mailan bikote berria izango da, Aspe eta Gari-taonaindia, hain zuzen ere.

Gazte mailan, berriz, Agirre eta Zuazua arituko dira Herna-

niarren kontra, eta horiek ere gogotik izerditu beharko dute partidua irabazteko. Azkenik, seniorretan, Zugasti eta Lazkano izan dira hautatuak, eta horiek ere kontrario benetan gogorak izango dituzte. Erroizenea eta Otegi hernaniarrak izango dituzte aurrez aurre. Hernaniko biko-

te hori Federazioetako Txapelketa jokatzeko ari da Gipuzkoa ordezkatzeko; hortaz, argi dago kontutan hartzeko kontrarioak direla.

Joaneko partidua gaur jokatu dute, Hernanin, eta itzuliko hurrengo egubakoitzean izango da, Uarkapen, arratsaldeko zazpietatik aurrera.

Arrasateko Pilota Txapelketa

A Taldea			B Taldea		
	jok.	punt.		jok.	punt.
Gaizka - Iraultza	1	2	Txori - Kajita	1	2
Xabi - Egoitz	1	2	Ion - Igor	1	2
Oskar - Igor	1	2	Ander - Mikel	1	1
Pin - Bode	1	1	Aritz - Aitor	1	1
Toribio - Pi	1	1	Oxel - Kuki	0	0
Xabi - Gufi	1	0	Pitu - Muxi	0	0
Gaizka - Ugutz	1	0	Eimon - Iker	0	0

D Taldea			E Taldea		
	jok.	punt.		jok.	punt.
Bolu - Egoitz	1	2	Iker - Iker	1	2
Txetxi - Albes	1	2	Txopo - Frantxis	1	2
Iraultza - Aitziber	1	2	Jon - Andoni	1	2
Zubi - Pon	1	1	Tximu - Zaka	1	1
Mikel - Unai	1	1	Lur - Skritx	1	1
Xabier - Oskar	1	1	Txopo - Frantxis	1	1
Kepa - Goiko	0	0	Ander - Ibai	1	1
Edu - Igor	0	0			

Hasi da txapelketa !

Joan den astean hasi zen Arrasateko Koadrila Arteko Txapelketa, eta partidak normaltasunez jokatu dira. Partidaren bat edo beste atzeratu egin dute dagoeneko, eta bikoteren bateko ordeko jokalariren bat bilatu beharko du. Antolatzaileek partidua pilotagoekin jokatu zitezela esan zuten, baina antza denez, joan den urteko pilotak goxoagoak ziren. Ohitu egin behar.



Hurrengo partidua:

Apirilak 27, zapatua (Musakolako kiroldegian)

- Aritz - Aitor vs Ion - Igor 10:00 Frontoi txikia
- Txori - Kajita vs Ander - Mikel 10:30 Frontoi txikia
- Oxel Kuki vs Eimon - Iker 11:00 Frontoi txikia
- Gaizka - Iraultza vs Pin - Bode 11:30 Frontoi txikia
- Xabi - Gufi vs Oskar - Igor 12:00 Frontoi txikia
- Toribio - Pi vs Gaizka - Ugutz 12:30 Frontoi txikia
- Iker - Iker vs Jon - Andoni 10:00 Frontoi handia
- Txopo - Frantxis vs Tximu - Zaka 10:30 Frontoi handia
- Iñigo - Isturiz vs Ander - Ibai 11:00 Frontoi handia
- Xabier - Oscar vs Mikel - Unai 11:30 Frontoi handia
- Bolu - Egoitz vs Txetxi - Albes 12:00 Frontoi handia
- Kepa - Goiko vs Zubi - Pon 12:30 Frontoi handia
- Edu - Igor vs Iraultza - Aitziber 13:00 Frontoi handia

FOTOKIROLA



Aurtengo AUKEA sariak, gertu

Noiz banatuko dituzten zehaztu barik badago ere, aurtengo AUKEA sariak norendako izango diren erabakita dago dagoeneko. Bakarkako kirolean, Jonathan Pérez pertikajazilaria izan da irabazlea. Taldeka, AKE Triatlói Taldearendako izango da saria, nahiz eta orain Debagoieneko Triatlói Taldea deitzen den. Azkenik, sari berezia Jose Luis Morenorenendako izango da, herri kirolaren alde egindako lanagatik. /X.U.

ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TLF. 943 711768



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Ondo San Andre

2002ko
apirilaren
maiatzak

Aramaio
okindegia

Croissante eta opil
egin berriak.

Jai zoriontsuak
eta on egin!

Maisu Guridi, 3
Tel.: 943 79 06 46

IRU

Zangitu
MARGOAK
ALFONBRAK

Araba Etorbidea, 3
Eskatu pabeloia
Tel. 943 79 11 71

Muruamendiaraz
GOZOTEGIA

Leintzibar, 4
Tel.: 943 79 23 19

Urretxu
taberna

Ondo
pasa jaietan

Maisu Guridi, 1
Tel.: 943 79 15 93
ARRASATE

Jabier
Gozokidenda

Bañez doktorea, 6
Tel.: 943 79 49 82

OINETAKO KONPONKETAK
RAOS

Mota guztietako
giltzen kopiak

Bañez Doktorea, 6 behea
Tel.: 943 79 74 87
San Andres

TABERNA

J/J

Bñez D.K.,6
(San Andres auzoa)
943 79 74 12

LIZARRALDE
kirolak

Bizikleten salmenta
eta konponketa

Oñati
Olakua, 16.
Tel.: 943 78 29 86

Arrasate
Foruen plaza, 1-2
Tel.: 943 79 91 47

Perez
Fruituak eta Janariak

Kontserbetan espezializatu

Maisu Guridi 3
Tel.: 943 71 29 99

BAI-BAI

- Gazte moda •
- Osagarriak •

Bañez doktorea, 15
Tel.: 943 79 06 37

Urretxu
taberna

Maisu Guridi, 1
Tel.: 943 79 15 93
ARRASATE

NUEVO
Taberna

Mota
guztietako
pintxoak

Bñez D.K., 15
(San Andres auzoa)
943 79 38 19

Jose
Antonio
Izagirre

HARATEGIA
URDAITEGIA

Kurtzetxiki, 2
Tel.: 943 79 59 86

Imagen
Ile-apaindegi mistoa

Solariuma
manikura
makillajea

Banez Doktorea 10
ARRASATE
Tel 943 79 29 18

AKADEMIA
BASTIDA
LANBIDE HEZIKETARAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1
Arrasate
Tel.: 943 79 35 33
943 79 32 16
Faxa: 943 79 06 28
emaila: bastida@bastida.es

Langai **INEM**

BLANCA
TEXTIL HOGAR

Zure etxea barrutik
jazten espezialistak

Maisu Guridi, 3
Tel.: 943 77 20 09

FORUEN

kafetegia

Espezialitatea:
rabak
Giro paregabea

Foruen plaza, 2
Tel.: 943 79 06 16
20500 ARRASATE

AZPILIKUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA

Bañez doktorea, 10
Tel.: 943 79 28 21

WHISKERIA

Domeketan
after-a goizeko
09:00 etatik...

Garro Jenerala 3 behea
Tel.: 943 79 14 49

pasa ko jaietan!!

ko
30
3,4 eta 5

EDERTU Ileapaindegia



Zutikako
eta etzandako
solariuma
10 saio 40 €



San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • ARRASATE

Clari Arraindegia



Espezialitatea:
Arrain eta marisko freskoak

Araba Etorbidea 16
Tel : 943 77 04 57

CAFÉ



KAFETEGIA

Kontzeziño 14
943 71 29 95
ARRASATE

IZASKUN

ARRAINDEGIA



Araba pasealekua, 3
Tel.: 943 79 19 86

Bañez Doktoorea, 13
Tel.: 943 79 15 10

AVENIDA



KAFETEGIA

Bñez D.K.,11
(San Andres auzoa)
943 79 20 21

KURRUXKO

Okindegia

Urdaitegia

Gozotegia

Bakailaoa

Bañez doktoorea, 12
Tel.: 943 79 22 57



GIZON, EMAKUME ETA
HAURRENTZAKO JANTZIDENDA

Bañez doktoorea, 1
Tel.: 943 79 63 85

Rita

FRUITADENDA



Errebuelta, 10
Tel.: 677 81 23 82

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak: legatz kokotxak
eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE
Tel.: 943 79 55 82



Araia Gaztak

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Bañez doktoorea, 8
San Andres

TOKI EDER KAFE TABERNA


pintxoak
aukeran

musika ona

Bñez D.K.,11
(San Andres auzoa)
943 79 31 45



Araba Etorbidea, 4
Tel.: 943 79 19 88
Faxa: 943 77 15 76
emaila: ekos@ekos.org



herri eskola

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Ondo pasatu jaietan!!

Alfonso VIII, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 69 • Faxa: 943 79 00 44

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak,
ateak, oholzak, leihoak etab.



**AROSZTEGIA
LAGUN**

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL
KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 11 35



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak**

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren
salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

Margoak

APAIN
MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

ELKARRIZKETA

JOXE ARRIARAN/ PILOTARI OHIA

"Sekulako ezker-gantxoa zeukan, pilota erre egingo zuela zirudien"

ARRASATE IRRATIA

Joxe Arriaran pilotari ohia-ri elkarrizketa egiteko ez da inongo aitzakiarik behar. Hala ere, elkarrizketa hau domekan hil zen Jose Mari Palacios *Ogeta* hobeto eza-gutzeko aprobetxatu dugu. Eta horretarako ez dago Ogetaren lagun on batengana jotzea bes-terik. Joxerengana, hain zuzen.

Zelakoa zen Ogeta?

Oso jatorra zen. Batzuek harroputz samarra zela esaten zuten, baina hura ezagutu genuenok badakigu ez zela horrela. Pilotariok oso ondo konpontzen ginen kalean, eta pertsona elegante zen, bai pilotaleku barruan baita kanpoan ere. Gu baino aurreratuagoa zen, eta jantzi ere modu berezian janzten zen, oso elegante. Artista bat zen hura.

Azkenaldian ez ei zebilen oso ondo.

Bai, halaxe da. Osasun arazoak zituen. Azkenekoz, Arrasaten ikusi nuen, eta ez zegoen bate-re ondo. Kantzerra zeukan, eta nahiko aurreratua. Zapatuan, lagun batek deitu zidan eta *Ogeta* oso gaizki zegoela esan zidan.


Hortaz, ez dira hauek egun oso alaiak.

Egun tristeak dira, baina alai-tasunez gogoratzen dut hura. Elkarren kontra partidu asko jokatu genituen, baina bikote moduan gutxitan izan ginen elkarrekin. Hortaz, jeneralean kontrario baginen ere, oso lagun onak ginen. Nire emaztea zenarekin ere oso ondo konpontzen zen; barre ugari egiten genuen elkarrekin.

Zergatik El Ciclón?

Gauza askogatik. Hasteko, atleta hutsa zelako. Sekulako indarra zeukan, eta sasoi hobea. Haren ezker-gantxoaren modu-ekorik oraindik ez dela ikusi diote askok, benetan ikusgarria zen. Pilota jotzen zuen bakoitzean, "apurtu" egin behar zuela zirudien, "erre" egin behar zuela.

Gasteizko pilotalekuari ere



XABIER URZELAI

"Hura ezagutu genuenok badakigu ez zela batere harroa. Oso pertsona jatorra zen"

haren izena jarri zioten.

Bai, eta normala da, gainera. Araban egon den pilotari handiena izan da *Ogeta*, eta kirolaren alde ere lan ugari egin zuen. Pilotari handia zen.

Final bat ere jokatu zenuen Ogeta-ren kontra, 1958. urte inguruan.

Bai, eta erraz irabazi zidan, gainera. Ordurako ni jipoi ederrak hartuta nengoen, eta normala zen, hura gazteagoa zen-eta. Azken baten, gure errelebu-

"Argi zegoen Ogeta hasiera-hasieratik izango zela puntako pilotaria. Oso gazte hasi zen pilotan"

izan zen *Ogeta*, eta a ze nolako errelebu! Gogoratzen dut 22-7 galdu nuela orduko hartan. Hori ez dut erraz ahaztuko.

Pilotalekuak goitik behera betetzen ei zituen.

Bai, eta hasiera-hasieratik betetzen zituen. Argi zegoen punta-puntako pilotaria izango zela, eta zale asko zituen. Pilotalekuak bete egiten zituen, eta zelan, gainera. Eta haren partiduetara emakume asko ere joaten ziren, horretarako ere abila zen-eta.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Iriztu Taberna - Etxerat	4-5
AC Surcos - Usotz Potroak	1-4
Bin Laden - Goma2	6-7
KJ Basati - Bikain Akademia	3-5

B MULTZOA

Azkena You Know - Chapime Dribling	9-2
Betrayer - I.K.P.	7-2
Rayo Aldeano - AT Celaya	5-5
Aurrera Bolie - Irati STS	3-6

PARTIDUAK

APIRILAK 27, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Iriztu Tab - Usotz Potroak	Antolakun
12:00: Chap Dribling - AT Celaya	Antolaku
13:00: Rayo Aldeano - Aurrera Bolie	Antola
15:50: AC Surcos - Bikain Akad.	Antolakun
16:50: Betrayer - Irati STS	Antolakuntza
18:00: Goma2 - Etxerat	Antolakuntza

APIRILAK 28, DOMEKA

11:50: Azkena YK - I.K.P.	Antolakuntza
13:00: Bin Laden - KJ Basati	Antolakuntza

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Etxerat	8	4
2. AC Surcos	7	4
3. Goma2	6	4
4. Koka Junior Basati	4	4
5. Bin Laden	3	4
6. Iriztu taberna	2	4
7. Bikain Akademia	2	4
8. Usotz Potroak	0	4

B MULTZOA

	P	J
1. Azkena YK	7	4
2. Betrayer	6	4
3. Chapime Dribling	4	4
4. Irati STS	4	4
5. Rayo Aldeano	4	4
6. AT Celaya	3	4
7. Aurrera Bolie	2	4
8. I.K.P.	2	4

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOA

Kenci Arrasate - Fineco La Salle
Seniorrak: Zapatuan, 18:00. Iturripe.
STL Gaztelu - Kenci Arrasate
23 urte azp.: Zapatuan, 16:00. Donostia.
Kenci Arrasate - Lacor
Jun. mut.: Zapatuan, 16:00. Arrasate.
Kenci Arrasate - Aloña Mendi
Jun. nes.: Zapatuan, 10:00. Arrasate.
Nere Sport - Kenci Arrasate
Kadeteak: Zapatuan, 16:00. Zarautz.

FUTBOLA

Ilintxa - Mondra
Erregionala: Zapatuan, 16:30. Legazpi.
Mondra - Aloña Mendi
Ohor. gazt.: Zapatuan, 16:00. Atxabalpe.
Arrasate - Danena
Big. gazt.: Zapatuan, 18:00. Atxabalpe.
Sp. Herrera - Arrasate
Big. gazt.: Zapatuan, 18:00. Atxabalpe.
Touring - Arrasate
Ohor. infant.: Zapatuan, 12:00. Errenteria.

Mondra - Intxaurdi

Neskek: Domekan, 11:00. Atxabalpe.

ESKUBALOA

Ormaiztegi - AGR Arrasate
Seniorrak: Zapatuan, 18:00. Ormaiztegi.
Egia Joggers - Arrasate
Gazteak: Zapatuan, 19:00. Egia.

PILOTA (HERRI ARTEKO TXAPELKETA)

Hernani - Arrasate
Egubakoitza, 22:00. Hernani.

EMAITZAK

FUTBOLA

Efregionala: Mondra - Soraluze 4-1
Ohor. gazte maila: Bergara - Mondra 1-1
2. mailako gazteak: Amaro - Arrasate 3-2
Ohor. kad.: Arrasate - M. Bihotza 1-1
Ohor. infant.: Arrasate - Lengokoak 2-2
Neskek: Mondra - Dunboa 1-2

ESKUBALOA

Seniorrak: AGR Arrasate - Zarautz 27-37
Seniorrak: Arrasate - Egia 19-27
Gazteak: Arrasate - Pulpo 15-35


SASKIBALOA

Seniorrak: C.R. Ardoy - Kenci Arrasa 93-83
Jun. mu.: Andraitz - Kenci Arrasate 39-81
Jun. nes.: Inter B - Kenci Arrasate 23-31

**TOLDOS
LECE** C/B

Kataide Industrialdea, 14 Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45

**Eguzkiari aurre egiten diogu
inork baino hobeto**



**Monte
taberna**

Maalako arrabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ELKARRIZKETA

SU TA GAR/MUSIKA TALDEA

“Gazteak gu ikustera etortzea atzean gelditu ez garen froga da”

IKER BARANDIARAN

Su Ta Gar taldekoek kontzertu biribila eman zuten Arrasateko gaztetxean, XI. urteurreneko ekitaldien barruan.

IKER BARANDIARAN

Su Ta Gar taldekoek kontzertua eman zuten joan den egunean Arrasateko gaztetxean. Guk aukera aprobetxatu genuen taldeari elkarrizketa egiteko, eta horrela, taldeko abeslari eta gitarrista Aitor Gorosabelekin egon ginen.

Zer moduz gaurko kontzertua? Horrelako erantzunik espero zenuten?

Izugarria izan da. Asteburua ez izan arren, jendea etorriko zen itxaropena genuen, baina itxaropena edukitzearekin ez da nahikoa izaten. Edozelan ere, oso pozik gelditu gara kontzertuarekin. Arrakastatsua izan da. Gainera, hasieran, jendea oso lasai zegoen, eguna zelako-edo, eta emanaldia aurrera joan den neurrian, jendea saltoka eta dantza baten hasi da. Beste batzuetan ere gustura jo dugu Arrasaten. Bestalde, gaztetxeako kontzertuak beti izaten dira askoz beroagoak.

Zuen kontzertuetara jende gazte asko hurreratzen da...

Bai, egia da. Alde batetik, nagusiago sentiarazten gaitu, baina bestetik, oso pozgarria da. Gazteak kontzertuetara etortzea gure musika atzean gelditu ez den froga da, eta asko motibatzen du horrek. Gainera, gazteak asko mugitzen dira, eta indartsu datoz.

Jo Ta Ke lanarekin Euskadi Gaztea saria jaso duzue. Pozik, jaso duzuen sariarekin?

Poztasun handia eman digu. Beti da polita esker ona jasotzea, are gehiago entzuleen botoei esker izan bada. Zuzeneko bat kaleratzeko gogo sutsua geneu-

“Kontzertua sekulakoa izan da. Asteburua ez izan arren, izugarritzko giroa egon da”

kan; lan mordoa egin genuen eta oso gustura geratu ginen emaitzarekin. Lan handia izan da eta asko pozten gaitu jendeak horrela ikusteak.

Galder batera jotzailea zuekin dago berrito. Zelan dago taldea orain? Gogor?

Oso gustura gaude, familia bat izango bagina bezala. Galderrek gurekin urtebete inguru darama eta kontzertu biribilak ematen gabilta. Ezin hobeto gabilta; hortaz, ezin kexatu.

Beste disko bat prestatzeko asmotan ei zabilzate. Konta egiguzu zerbait...

Bueno, hurrengo diskoa udaberrian ateratzeko asmoa daukagu. Kantu solte batzuk daukagu, hitz batzuk ere bai... Esan genezake, momentuz, diskoa izango denaren zirriborroak ditugula. Diskoa lehenago ateratzeko asmoa geneukan, baina gura-gu dugu gauzak ondo prestatu eta lasaiago hartu.

Desmitifika dezagun kontu bat: musikaz bizi izatea ez ei da batere erraza...

Ez, ez da batere erraza. Euskal Herria oso merkatu txikia da eta ezin da disko askorik saldu. Horrez gainera, hemen, *cachet*-a defenditzea oso gaitza da. Gauzak dauden moduan egonda, ez da

“Hurrengo diskoa udaberrian atera gura dugu; oraindik zirriborroa egiten gabilta”

harrizkekoa Euskal Herriko talde gehienak zelanbait amateur-rrak izatea. Estudioko musikariak, ordea, errazago biziko dira musikaz taldeak baino. Zuzenekoetarako sasoi hobekak eta makalagoak izaten dira. Onenei eutsi behar, eta aurrera. Bestalde, ahal izanez gero, egiten den lanean sinetsi eta horretara dedikatzen denbora guztia izatea.

Zertan dabil Borxa? Zein inplikazio dauka Su Ta Gar taldean?

Buru-belarri dabil lanean, batez ere, gure webgunea eguneratzen, e-postei erantzuten, eta abar. Atera dugun egutegia ere Borxak eta haren anaiak diseinatu dute. Horrez gain, hurrengo diskoa zelakoa izango den erabaki bezain laster, hitz batzuk idazten hasiko da eta azalaren diseinua ere hark egingo du.

Bukatzeko, Aitor, zer moduz telebistan, ETB-1eko Bertatik Bertara saioan?

Bueno, apur bat urduri, baina oso gustura. Hiru aste behin agertuko naiz, kolaborazio moduan. Egia esan, gustuko dudana saioa eta lantaldea da. Gainera, oso informala da; azken baten, nire musika talde gustuko gainean berba egitea da.

KULTURAPILULAK

Brass Pamplona metal boskoteak kontzertua eskainiko du gaur Amaia Udal Antzokian

Brass Pamplona metal boskoteak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Amaian. Bazkideek hiru euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, berriz, bost euro. Boskotea bi trompetak, tronboi batek, tronpa batek eta tuba batek osatzen dute, eta Tylman Susato-ren, Rossini-ren, Ian McDonald-en, Enrique Crespo-ren, Malcolm Arnold-en eta Gershwin-en piezak joko dituzte.

Corazon de Encina taldeko batzar berria gogotsu hasi da ekitaldiak antolatzen

Arrasaten dagoen Extremadurako kultura elkartearen, Corazon de Encinan, batzarreko karguak aldatu zituzten. Hemendik aurrera, elkartearen presidentea Ramon Hidalgo Merchán izango da. Idazkaria, berriz, Jesus Rodriguez Fernández, eta presidenteordea, Francisco Caballero González.

Batzarkide berriek gogor hasi dute euren agintaldia, eta Corazon de Encina elkartearen XV. Aste Kulturalerako egitaraua prestatu dute dagoeneko. Maiatzaren 4an hasiko da eta maiatzaren 12 arte iraungo dute prestatutako ekitaldiak.

El Corsal Desastrearen poesia musikatuaz gozatzeko aukera domekan gaztetxean

Malagan jaio baina Azkoitian bizi den Carlos Desastrek osatzen du El Corsal Desastre. Carlosek ibilbide luzea dauka: 713avo Amor taldearen sortzailea izan zen, eta gerora, Despues de Nunca taldea sortu zuen. Bakarlarri moduan ibiltzen denean, El Corsal Desastre izena hartzen du, eta gitarra distorsionatuak eta poesia iluna uztartzen ditu. Domekan, 19:00etan, gaztetxean arituko da.

XV. Arrasate Lehiaketetako sariak banatu zituzten atzo

I.B.

AEDk antolatzen duen XV. Arrasate Lehiaketetako irabazleek sariak jaso zituzten atzo, Monterron kultura etxean egindako ekitaldian. Ipuinak, poesiak, bertso-paperak eta komiki onenak saritu zituzten.

Sailez sail, honako hauek jaso zituzten sariak atzo: ipuinetan, 12 urte artekoetan, Ane Ibaeren eta Libe Aranburuzabalaren ipuinek bigarren saria jaso zuten, baita Maier Errastirenak ere. Lehenengo saria, berriz, ez diote inori eman; 13 urtekoen artean, berriz, Ainara Bordesekek bigarren saria eskuratu du, eta Jone Sagastak lehenengo saria; 14 urtekoen artean, bigarren saria Markel Baltategik hartu du, eta lehenengo Hasier Erañak; 15 eta 16 urte artekoen artean, bigarren saria hutsik gelditu da, eta lehenengo Onintze Gorospekek jaso du; 17 urte baino nagusiagoen artean, berriz, bigarren saria hutsik gelditu da, eta lehenengo saria Maider Osak jaso du.

Poesiari dagokionez, 14 urte artekoetan, bigarren saria Madi Urizarri eman diote eta lehenengo Jone Sagastari; 15 eta 16 urte artekoek dagokionez, bigarren saria Idurre Osak jaso du, baita Itziar Osak ere. Lehenengo, berriz, Nagore Arriolabengoak jaso du; 17 urtetik gorakoek dago-

kienez, bigarren saria Iñigo Louvellik eskuratu du, eta lehenengo, berriz, Maider Osak.

Bertso-paperetan ere izan dira sariak, jakina: 14 urte artekoek dagokionez, bigarren saria hutsik gelditu da, eta lehenengo saria Maite Frailek eta Maddalen Aki-zuk eskuratu dute; 15 eta 16 urte artekoek dagokionez, berriz, bigarren saria Maitane Mazmelak eskuratu du eta lehenengo Idurre Osak; 17 urte baino nagusiagoek dagokionez, bigarren saria Jokin Labaieni eman diote, eta lehenengo Maider Osari.

Azkenik, komikien saillean, eta 14 urte artekoek dagokionez, bigarren saria Eli Berridik jaso du, baita Mireia Floresek ere. Lehenengo saria, berriz, Gorka Pérez de Obanosek, Noemi Sierra eta Irune Elexpuruk egindako lanak jaso du; 15 eta 16 urte artekoen sariak hutsik gelditu dira; 17 urte baino nagusiagoek dagokionez, berriz, bigarren saria Gaspar Ferreirak eskuratu du eta lehenengo hutsik gelditu da.

XV. URTEURRENEKO JAIA

Arrasate Lehiaketetako XV. urteurrena dela eta, ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokiko hall-ean maiatzaren 3an, 18:00etan, bertsolari eta trikitilariak kalejira egingo dute. Eta 19:00etan, ipuinen, poesian, argazkien, komikien, antzerkien eta bertsoen ikuskizuna egingo dute.


BEHEKODENDATIK

Baltasar Rodríguez

ARIGARA FONTANERIXAKUE

XABIER URZELAI

Baltasar mondraguetarra da, Zigorrolakue, hobeto esanda. Ikasketak bukatu ez bazittuen be, lanbidie lanien jarduten ikesi dau. Txakurak asko maitte ditu, eta *Ariñ*-ekin mendixen gora eta behera ibiltten da ahal dauenien. Elorrixoko Sorospen Taldien txakurra erreskaterako preperetan dabil Baltasar.



- Ametz bat?**
Pakien bizi izetie.
Eta ametz txar bat?
Pakien ez bizi izetie.
Egin dozun azken biajie?
Piriniuetara, oin dala hiru aste.
Txartel horixe, zeñei?
Euskadiko eta Espaiñiako gobernuai.
Eta gorrix?
Aznarrei.
Pelikula bat? Liburu bat?
Disko bat?
El Padrino / Aspaldi da ez dote-la ezer irakurri / Euskal punka; adibidez, Cicatriz.
Drogak legalizauko zittukie?
Bai.
Eta prostituziñue?
Hori be bai.
Tabernetako txikiteue ala diskotekak?
Txikiteue, duda barik.
Ze gustetan jatzu Mondraguetik?
Zigorrola. (Barriek).
Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?
Aparakalekuen arazue.
Eta lehendakari izengo bazitze?
Euskal Herriko arazue konponketan ahaleginduko nitzake. Ahaleginddu, behintzet, ez da-eta bat be errex.
Bizio bat?
Erretie.
Mendi bat?
Udalatx.
Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?
Iñora be ez.
Ezagutu dozun pertsona interesante bat?
Ez jat iñor okurriduten.

"Fontaneruek asko irabazten dogule? Berune urre bihurketan dogule be esaten da"

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?
Geure bi amamak, bixetako bat bera be ez neuen ezagutu-eta.
Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?
Iñokin be ez.
Telebisiñoko programa bat?
La2-eko gabeko informatibue.
Eta irratikue?
Euskadi Irratixe entzuten dot.
Zertan gastauko zeunke dirue?
Ondo bizi izeten.
Fontaneruek asko irebazten dozuela esaten da.
Bai, eta berune urre bihurketan dogule be bai. Hori esan egi-tten da, baiñe...

"Guk gauza gutxi konponketan dogu. Sukalde eta komun barrixek jarten dittugu gehixago"

Ze da kañerixa baten topau dozun gauza harrigarrixena?
Untxi baten azala.
Eta desagradabliena?
Hori berori.
Fontaneruen gainien esamesa asko dago.
Bai, eta bonberuen eta kartueruen gainien be bai, baiñe hola-korik ez da pasetan.
Ze da gehixen konponketan dozuena?
Komunek eta sukaldiek, baiñe jeneralien gu ez gara gauzak konponketan ibiltten. Guk sukalde eta komun barrixek jarten dittugu.
Lanbidez kanbixetakotan, ze izengo zitzake?
Aberats.

NIREBIDAIAHURA/ Iñaki Etxebeste

Norvegiara / 2000ko abuztutik gaur arte

Biologia ikasten ari zela, azken urtea Norwegian igarotzeko aukera suertatu zitzaion Iñakiri, Erasmus bekari esker, eta ez zion aukera horri muzin egin. Erasmus beka amaitu eta gero, proiektu erakargarri bat eskaini zioten. Horrela, aurten eta datorren urtean hantxe ibiliko da, *fiordoan lurraldean*.

Joan den astean, Arrasaten izan zen Iñaki, eta harekin egoteko aprobetxatu genuen. Orain ez zaio horren gogorra egiten Norvegiara bueltatzea, dagoeneko ohituta dago-eta hango bizimodura. "Gainera, negu luzea pasatu da dagoeneko, eta orain, elurraz eta eguzkiaz gozaten hasi naiz". Askotan entzun izan dugu Europako iparraldeko estatuetan oso ondo bizi direla; egoera ekonomiko ona, langabezia maila txikia... "Norvegiar egoera ekonomiko oso ona da, baina askotan egoera ekonomiko eta bizi-kalitatea kontzeptuak nahastu egiten ditugu. Euskal Herrian moduan, inon ere ez."



"Norvegia oso ikusgarria da. Paraje ederrez eta animaliaz beteta dago"

"Dirua eta bizi-kalitatea kontzeptuak nahastu egiten ditugu"

Iñaki izeien eta pinuen fitokromoaren molekularren gaineko ikerketa egiten ari da, eta negu partean hainbat eta hainbat ordu egin ditu laborategian. Aisialdia hainbat gauza egiteko aprobetxatu du, besteak beste, argazkiak atera, eskia- eta piraguan ibiltzeko. "Han iraupen-eskia egin dut, batez ere; eski alpetarra egiteko aukera gutxi dago. Eta piraguan ere ibili naiz; Fiordoetako ura ez da izoztuta egoten, baina kontu handiz ibili behar izaten gara, bustiz gero, hipotermia arriskua izan daiteke-eta". Iñakik behin eta berriro dio Norvegia bisitatu beharreko lurraldea dela. "Hango ingurunea zoragarria da, eta animaliak atsegin dituenak inork baino gehiago gozatu-ko du han". Iñaki uda partean etorriko da berriro Arrasatera. Ordura arte, ondo ibili!

XABIER URZELAI



Somerøy uharteko argazkia, Troms-eko probintzian.

Arco Iris dendetan, kalitatezko argazkiak eta opariak errebelatu bakoitzeko. "Urratu eta urretu" txartelarekin lor itzazu 50, 100 edo 150 puntu, pila itzazu, eta aukera ezazu zure oparia!

250 puntu 450 puntu 800 puntu



Juan Manuel Berrueta

Iturriotz kalea 24 ARRASATE
Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18

Argazkien, koloreen eta oparien jaialdia



PERCOLOR



ARRASATE
Mª Paz
Apirilaren 15ean, urtebetzea. Zorionak! June, Maitane eta etxeokak.



ARRASATE
Txintxu
Apirilaren 18an, urtebetzea. Zorionak! June, Enkarni eta etxeokak.




ARRASATE
Joakin Algaba
Apirilaren 27an, 21 urte. Zorionak! Osaba-izeba eta lehengusuak.



ARRASATE
Marta
Apirilaren 26an, 30 urte. Zorionak! June eta etxeokak.



ARRASATE
Ander Ugalde
Apirilaren 19an, 23 urte. Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Urtzi Amiano
Apirilaren 21ean, 23 urte. Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Maialen Linazasoro
Apirilaren 28an, 12 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Oihane Altuna
Apirilaren 26an, 13 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Juan Jose Uribesalgo
Apirilaren 29an, urtebetzea. Zorionak! Esther, Oier eta Haritz.



ARRASATE
Eneida Felix
Apirilaren 28an, 9 urte. Zorionak! Aita eta ama.



ARRASATE
Kepa Detena
Apirilaren 23an, 6 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Jon Zabaleta
Apirilaren 22an, 14 urte. Zorionak, satellite! Koadrilakoak.



ARRASATE
Maialen Martín
Apirilaren 28an, 10 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Garazi Gartzia
Apirilaren 27an, 11 urte. Zorionak! Alazne, Iulen, aita eta ama.



ARRASATE
Gorka Zubizarreta
Apirilaren 24an, 25 urte. Zorionak! Faus, Garbiñe eta Joseba.



ARRASATE
Izar Bedia
Apirilaren 28an, 7 urte. Zorionak! Familiakoan partetik.



ARRASATE
Joana Durán
Apirilaren 25ean, urtebetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Aitor Bergaretxe
Apirilaren 28an, 19 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARAMAIO
Jon Beitia
Apirilaren 22an, 5 urte. Zorionak! Baserrikoen partetik.




ARRASATE
Olatz Undagoitia
Apirilaren 24an, 13 urte. Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Loli Urizarren
Apirilaren 28an, 43 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Amaia Martiartu
Apirilean, urtebetzea. Zorionak, *Kalifornia Press*-tik.



ARRASATE
Ortzai Pildain
Apirilaren 24an, 23 urte. Zorionak! Koadrilakoan partetik.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebedun hizkiak

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerrias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ZAHARREN ETXETIK

Zahar egoitzetako tabernetan salneurriak aldatu dituzte

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzu, Kontsumo eta Ongizate Sailak 2002. urterako udalerriko lau zaharren egoitzetarako tabernen prezio zerrenda berria onartu du. Hala ere, esan beharra dago erabaki hori hartzeak luze jo duela.

Izan ere, duela hainbat hilabete, Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako batzordeak Arrasateko lau zaharren egoitzetako arduradunei tabernetako salneurriak aldatzeko proposamen bana bidali zien. Horrez gain, Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta zahar egoitzetako batzarrak birritan batu behar izan ziren, euren arteko desadostasunak saihesteko.

SALNEURRIAK BERE HORRETAN UTZI

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako batzordeak ez zuen zahar egoitzetako batzarren proposamenekin bat egin. Izatez, zahar egoitzako batzarkideek egoitzetako tabernetan salneurriak bere horretan utzi gura zuten, baina Arrasateko Udaleko arduradunak, ordea, ez zeuden ados proposamen horrekin.



Erretiratuak gustura egoten dira zaharren egoitzetan kontu-kontari.

Horrexegatik, Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuak euren proposamenaren eta zahar egoitzetako arduradunen proposamenen arteko erabakia hartu gura izan dute. Hau da, azkenean, ez dituzte zahar egoitzetako salneurriak bere horretan utzi, erretiratuek gura zuten moduan, eta oster, ez dituzte zahar egoitzetako tabernen salneurriak Udaleko Gizarte Zerbitzuak hasieran gura zuen beste igo. Erdibideko

bat lortu gura izan dute, hortaz. Denen onerako izan dadila.

2003AN, SALNEURRIAK BERRAZTERTU

Udaleko Gizarte Zerbitzuak jakinarazitakoaren arabera, 2003. urte hasieran, aurten zahar egoitzetako tabernetarako adostutako salneurriak berriro aztertuko dituzte. Azterketa horrek salneurriak Kontsumo Prezioen Indizearen igoeraren arabera egokitzera izango du helburu.

LABUR

Abaroako zahar egoitzan batzarkide berriak sartu eta talde berria eratu dute

Abaroako zahar egoitzan batzar berria eratu dute. Izan ere, orain arteko batzarkideetako batzuek urte asko zeramatzaten euren karguetan, eta uztea erabaki zuten. Horrela, hemendik aurrera, zortzi lagunez osatutako lantaldeak jardungo du. Jose Riviere idazkaria da jarraitzen duen bakarra. Bestalde, lehendakaria Juan Luis Lizarralde izango da, eta administratzailea eta kuotak jasotzeko ardura Juan Iturbek izango du. Horrez gain, nabarmendu beharra dago batzarrean dauden emakumeen kopurua hazi egin dela; lehen, bi emakume zeuden, eta orain, hiru.

Toki-Argi zahar egoitzakoek Kontsumoaren gaineko jardunaldiak antolatu dituzte

Toki-Argi zahar egoitzakoek kontsumoaren gaineko jardunaldiak antolatu dituzte. Astelehenean, apirilaren 29an, 17:00etan, *Laguntza teknikoaren sorospena* izango du berbagai Rocio Salcedo abokatuak. Maiatzaren 2an, berriz, 17:00etan, *Medikamentuak eta automedikazioa* izango du berbagai Jon Ariño medikuak.



Bestalde, heziketa jardunaldiak ere prestatu dituzte. Horretarako, interesatuek aurrez eman beharko dute izena. Apirilaren 30ean, 17:00etan, *Etxeako konponketa lanak* eta maiatzaren 3an, 17:00etan, *Sendagaien erabilera* egokia aztertuko dituzte.

Abaroako zahar egoitzakoek Iratxera txangoa egingo dute datorren martitzenean

Abaroako Iratxera txangoa antolatu dute, zelanbait aurreko batzarri agurra emateko. Oraindik izena emateko aukera duzue. 09:00etan Abaroa ondotik irten, eta Los Arcos-era bidean, Borgia upelategia bisitatu eta lancha egingo dute. Gero, Los Arcos herrian, parroki, kultura etxea, azoka eta tabernak bisitatzeko aukera izango dute. Eta horren ondoren, Iratxe hotelean bazkaria izango dute, eta jarraian, dantza eta bingoa. Hiru autobus joango dira, eta pertsona bakoitzak 18 euro ordaindu beharko ditu.

UGARTE
ARROZTEGIA-ALTZARIAK

Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



San Juan 1 A, BERGARA. Tel.: 943 76 54 91. Faxe: 943 76 08 04.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko apirilaren 26a / 24. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Herriko sagardogileen aldeko Sagardogile Eguna

UBANE MADERA

Arabako patrioiarekin batera dator Aramaiora Sagardogileen Eguna. Horrela, domekan, festa ospatuko dute herrian. Besteak beste, hamaika sagardogile batuko dira.

Untzilla, Zabola, Azkoaga, Eguzkierripa, Salgo eta Ibarra auzoetako hamaika baserritarrek egindako sagardoa dastatu ahal izango da oraingo domekan Aramaion. Bigarren urtez, eta herriko sagardogileen lana errekonozitzeko, Sagardogile Eguna ospatuko dute, Txirritola Euskara Elkarteak antolatuta.

Bezperan hasiko da ospakizuna. 10:30etik aurrera talo ikastaroa izango da plazan. Gero, ikastaroan parte hartu dutenek ikasitakoa erakutsi ahal izango dute hurrengo egunean.

Eta domekan, herriko bertsolari gazteek hasiko dute eguna, 11:30ean. Gero, Aramaioko baserritarren sagardoa proba-



ARTXIBOA

laz, jende askok parte hartu zuen jaian, eta aurten ere gauza bera espero dute.

tu ahal izango da; edalontzia ordaindu, eta hortik aurrera, guztia doan. Hamaika baserritarrek egindako hamaika sagardo mota izango dira aukeran.

Eta sagardoari laguntzeko, txorizoa eta gazta salduko dute. Eguraldi ona bada, jaia plazan ospatuko da, eta bestela, kiroldegian.



Abiadura Handiko Trenaren aurka

Sagardogileen Eguna aprobetxatuta, Abiadura Handiko Trenaren kontrako Aramaioko taldeak kale bilkura egingo du domekan. Tren horrek Aramaiori eta inguruari eragingo dion kaltea salatuko dute; baita Aramaiori onurarik ez diola ekarriko ere; izan ere, nahiz eta tren Aramaiotik pasatu, herrian ez du geralekurik izango. /UBANE MADERA

HERRITARRENHITZA/ Julen Arriolabengoa • Filologoa

Aramaioko antzinako jauntxoak

Gaurkoan ere kronika zaharretan aurkitu ditudan kontuekin natorkizue. Erdiak ipuin, beste erdiak batek daki. Oraingo honetan Aramaioko Maskaiako etxea hartuko dut ahotan.

Anton Bedia kronikariak dioenez, Frantziatik etorritako Ludobiko zeritzan batek eraiki omen zuen Maskaiako etxea eta Aramaioko bailarako jaun bilakatu zen berehala. Ludobiko hori Nafarroako erregeen ahaidekoa omen zen gainera. Urteen joanean, Maskaiakoak bere gorabeherak izan zituen Bizkaiko Muxika etxeko jaunarekin, eta ondorioz, odol ugari isuri omen zen inguruko lurretan. Muxikako-

ak beretzat nahi zuen Aramaio eta trikimailu polita asmatu zuen bailara eskuratzeko: Artean Maskaiako jauna zahartua zegoen eta ez zuen andrerik etxean.

Horrela bada, Muxikakoak bere alaba eman zion Maskaiakoari baldintza batekin: emazte gaztearekin umeren bat izanez gero, bailara Maskaiakoaren esku geratuko zen betiko; umerik jaio ezik, ordea, Muxikakoaren menpe izango zen lurraldea aurrerantzean. Maskaiako jauna



“Muxikakoak bere alaba eman zion Maskaiakoari”

aspalditik omen zebilen gaixo, petrikilo eta medikuen zaintzak jasotzen. Purgak, enplastuak eta antzeko tratamenduak eguneroko gauza ziren etxe hartan, eta andre gazte ezkonberriari ez zitzaion zaila gertatu etxeko jauna bere ohetik urruti samarrean

mantentzea. –Zauden egoeran kalterako izango duzu nirekin oheratzea, ahalegin hutsak akabatu egingo zintuzke. esaten zion andreak Maskaiakoari.

Azkenean, andre gazteare-

kin ohean egon gabe hil zen etxeko jaun gaixoa, eta, ondorioz, Muxikakoaren eskutara igaro zen Aramaioko bailara. Maskaiako etxearen armariak, eta baita Aramaiokoak ere, lirio lorea (flor de lis) omen zuen fondo urdinaren gainean, ziurrenik ares-tian aipatu dugun fundatzaileak Frantziatik ekarrita. Muxikakoekin bat egitean, berriz, etxe honen armak hartu zituen Maskaiakoak, hiru faxa urdin urrezko zelaian.

Maskaiakoak etxe ugari eraiki zuen Aramaion, bestek beste Ametzuko etxea. Ametzuko seme bat, Amador de Ameçua, Granadan egon omen zen musulmanen aurkako gerran, 1491. urtean.

LABUR

Zuberoari laguntzeko taldea sortu da Aramaion

Euskal Herriko beste herri batzuetan moduan, Zuberoari laguntzeko taldea sortu dute Aramaion. Hain zuzen ere, domekako Sagardogileen Eguna aprobetxatu eta lehenengo aldiz irtengo dira kalera. Postu bat ipiniko dute. Taldearen aurkezpena egingo dute eta informazioa banatu herritarren artean. Besteak beste, zuberotarrei laguntzeko 1.500 euro pasatxo batzea da Aramaioko taldearen helburua. Udabiltzak abian ipinitako Xiberoa Garatzen egitasmoaren barruan dago ekimena, Zuberoa berpizten laguntzeko egitasmoa, hain zuzen.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

TURKIAKO PRESOEI BURUZ

Turkiako kartzeletan bizi duten egoera latza berabai izango da gaur, barikua, 20:00etatik aurrera, kultura etxean. Hitzaldia eta bideo emanaldia izango dira.

ARETO FUTBOLEKO EMAITZAK

Bañerako mutilek azkenaldiko bolada bikainari eutsi eta 3-8 irabazi zioten Gasteizko Aurrera taldeari. Neskek, berriz, Baro-Calo taldearen kontrako partidua jokatu behar zuten, baina aurkariak ez ziren azaldu. Hortaz, orain, Kiroletako batzordeak erabaki beharko du zertan geratzen diren. Bestalde, domekan Arabako patroiarren eguna denez -San Prudentzio-, datozen bi asteburuotan ez dute partidurik izango, ez neskek ezta mutilek ere. Hortaz, maiatzaren 11ra arteko atsedenaldia dute.

LIBURUTEGIA ETA LUDOTEKA

San Prudentzio eguneko eta Maiatzaren 1eko jaiegunak direla eta, datorren astelehenean, martitzenean eta eguaztenean, herriko liburutegia eta ludoteka itxita egongo dira. Hortaz, maiatzaren 2an zabalduko dituzte berriro.

ZINEMA

Domekan, *Jurassic Park III* filma emango dute kultura etxean, betiko moduan, 17:00etatik aurrera.

HIRUGARREN ADINEKOENAKO

Datorren egubakoitzean, hirugarren adinekoen bosgarren topaketa izango da. Arratzu-Ubarrundia (Araba) bisitatzeko aukera izango dute, oraingo honetan, herriko nagusiek.

GIZARTEA

e-debagoiena izeneko egitasmoan parte hartzea eskatu du Udalak

Joan den martxoaren 25ean, Leintz Gatzagan egin zen ekitaldian, e-debagoiena proiektua sinatu zuten, besteak beste, Debagoieneko udalerriek. Aramaio ere ekitaldira gonbidatuta zegoen, baina, alkateak adierazi zenez, hitzarmen horretan ez da Aramaio azaltzen eta horregatik ez zuten hitzarmenik sinatu.

Edozelan ere, udalaren asmoa da proiektu horretan eskubide guztiekin sartzeari; Udalak dio eskualde bereko udalerrria dela Aramaio.

Hori dela eta, "e-debagoienan parte hartzen duten agente guztiei (MCC, MU, Mankomunitatea, Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Euskaltel eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila) Aramaio Udalaren integrazioa eskatu gura die, eskualdeko gainerako udalerrien eskubide berekin". Halaxe erabaki zuen udalbatzarrek azkeneko bilkuran.



Zaborra batzeko hitzarmen berria sinatuko du Aramaio Udalak

UBANE MADERA


Aramaio Udalak eta Gorbeia Inguruen Partzuergoak hitzarmena sinatuko dute Aramaio zaborrak batzeko. Edozelan ere, zerbitzua orain arte moduan emango dute, hortaz, ez du eraginik izango zaborrak ateratzeko epearekin eta maiztasunarekin.

Orain arte Udalak kontratatu izan du Aramaio zaborrak batzeko zerbitzua. Baina, iaz Aramaio Udalak Gorbeia Inguruen Partzuergoan kide moduan sartzea eskatu zuen. Eta, orain, eskaera partzuergoan aztertu eta gero, bi erakundeek hitzarmena sinatzea erabaki dute. Horren arabera, 2002. urteko erditik 2003. urtera arte, Gorbeia Inguruen Partzuergo arduratuko da Aramaio zaborrak batzeaz. Gero, 2004an, Aramaio Udala eskubide osoarekin izango da partzuergoko kide, hortaz, hori gauzatu arteko hitzarmena sinatu dute bi erakundeek.

Edozelan ere, hitzarmen horrek ez du aldatuko zaborrak batzeko egunak ezta maiztasuna ere. Hortaz, orain arte moduan segitu beharko dute herritarrek.

GARRAIO ESKAERAK

Bestalde, Aramaio Udalak Mankomunitateari eskatu dio



Nahiz eta zaborra batzeko zerbitzua eskuz aldatu, herritarrek egun eta ordu beretan atera beharko dute zaborra.

Aramaio ere kontuan hartzea gaixoak Arrasateko Eguneko Zentro Psikogeriatrikora eramateko garraio zerbitzuan. Kontua da, orain Mankomunitateak garraio berezia ipini duela gaixoak zentro horretara eramateko. Baina, Mankomunitateko kide ez denez, Aramaio ibilbidetik kanpo utzi

dute. Aramaio Udalak, bere aldetik adierazi du Aramaio eskualde bereko udalerrria izanda, zenbait zerbitzu Debagoienetik hartzen dituela (hezkuntza, osasun zerbitzuak, lana...), hortaz, Mankomunitateari eskatu dio Aramaio ere sartzea garraio zerbitzu horretan.

HERRIKO AUZOETAN

ARRIOLA II

Arriolaren armarrian bi otso ageri dira, berde koloreko marra batean ibiltzen eta urdin koloreko marra batek inguratuta. "Aramayo dabenak ez lemaio" irakur daiteke.

Gaur egun auzoak duen izena, hasierakoaren laburpena da. XVIII. mendera arte Arriolabengoa izena zuen. Baina, 1788. urtean, norbaitek, izena luzeegia zela eta, laburtzea erabaki zuen eta "Bengoa" izenarekin geratu zen auzoa. Logikoena Arriola gordezta litzateke eta ez Bengoa; bigarren hori leku mordotan erabiltzen da eta; horrexegatik daude horrenbeste Bengoa edo Beitia Aramaion. Dena dela, guztiek ez zuten izen osoa galdu. Hor daude, adibidez, Aldekoa baserriko ondorengoak: Arriolabengoa.

Bengoa baserria ibarreko garrantzitsuenetarikoa izan da beti. Mendi eta lur sailetan abertatsa da eta hango semeak ibarreko aitoren semeen artean aurrenekoetako lekuetan eseri ohi dira. Orain dela bi mende, oinordekoak harro esaten zuten, Salgoko parrokiako meztatara joan zitekeela bere jabetzetatik atera barik (km batera zegoen).

"Aramaio Ibarren lehe-na eta oraina". JM Elejalde.

ERRETRATU ZAHARRA

Elgetan zehar Eibarrera
mendi buelta

Koadrilako lagun gehienak mendigoizaleak zirela-eta, inguruetako gailurak ondo asko ezagutzen zituen argazkiko lagun taldeak. Domeka goizetan joaten ei ziren, jeneralean. Eta zaletasun handia zuten, horren bereziak ziren banako motxila (ordura arte, motxilak handiak ziren, lauzpabost lagun edo gehiagorendakoak) eta makila bana erosi zuten Tolo-ren dendan, zortzi pezetaren truke. Argazkian ikus dezakegu guztia.

Argazkiko egunean, Eibarko Kalamua mendira joan ziren. Gure berriemaileak kontatu digunez, 06:00etan irten ziren Arrasatetik. Kanpanzartik Intxortara eta handik, Elgetara joan ziren. Han ateratu zuten argazkia.

Gero, Elgetatik Eibarrera-ko bidea hartu zuten. Gure berriemaileak esan digu orduantxe egiten ari zirela gaur egun Elgetatik Eibarrera doan errepidea. Eibarrera heldu eta gero, Eibartik Arratera bidean, erdi inguruan, Usartza auzoko taberna albotik egin zuten Kalamuara.

Arratsaldean, Eibarko Batzokira jaitsi ziren eta hango frontoian pilotan egin zuten. Ilunkeran, tren hartu eta Arrasatera itzuli ziren.

Honakoak agertzen dira argazkian: makurtuta, Pedro Sologaitoa, eta zutik, Josu Otadui eta Jose Mari Lasagabaster. Argazkia Luis Arana Kano-k ateratu zuen.

Argazkia: Josu Otadui
Informazioa: Josu Otadui
Urtea: 1934. urtea



NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

Garagatzarko
'Bost ate' baserria

Garagartzarko lagun batek ekarri digun argazki honetan *Bost ate* baserria ikus daiteke. Baserria Kobate gainean azaltzen den eraikina da, eta gaur egun, nahiko egoera txarrean dago baserria. Pedro Sologaitoa argazkilaria ederki harrapatu zuen baserria orain dela hirurogei urte, baina gaur egun, ezinezkoa da leku beretik baserriaren argazkia ateratzea.



≈ 1940

Garagartzarko lagunaren esanetan, orduan, Aramaioko errekek askoz ur gehiago zerman. Gaur egun, pinu asko dagoenez...



2002

Azken urte hauetan erreka ondoan hazi diren zuhaitzek auzoaren ikuspegia mugatzen dute. Baserriak ere berritu egin dituzte ordutik hona.

**Metal aroztegia eta PVC**

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.**Guk egindakoak:**


- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Marivi Ioradenda

Alfontso X. Jakintsua 5
Grupo San Juan
Tel.: 943 79 15 59



Maiatzaren 5ean Amaren eguna



ARRASATE Otarora z/g.
Tel.: 943 79 82 68

BERGARA
Barrenkale 35 eta Irala 5



AMAGARA

Erdiko kale 54 behea.
Tel.: 943 79 09 09

AKASO EZ DU MEREZI?
EDERTASUNA
OPARI EGIOZU





autopista aldizkaria
FORD FOCUS,
FIDAGARRITASUNEAN AURRENA

Alemanian, Ford Focus autoa liderra da kalitatean eta fidegarritasunean. Horixe dio automobilaren industria-ren kontrol ikuskapena eta gainbegiratzeko teknikoak egiten dituen TÜV erakundearen urteko txostenak. Era berean, txosten horrek dio Ford Focus autoak presentzia geroago eta handiagoa duela Europako errepideetan eta geroago eta presentzia txikiagoa tailerretan. Hainbat frogak egin eta gero, emaitza izan da Ford Focus autoak ehuneko bateko akats probentzajak besterik ez duela; azken hamar urteotan TÜV erakundeak erregistratu duen portzentajerik txikiena.



TÜV txostena erabiltzeko autoen inguruko informazio gida bat da. Txosten horrek autoak sailkatzen ditu "akats txiki" eta "akats nagusi" araberara. Nahiz eta Japoniarrak oraindik ere talde nagusiena izan "akats txiki"-etan, Ford Focus autoarekin, Alemaniako fabrikatzaile batek lehen postua lortu du urte bat eta hiru urteko antzintasuna duten autoen artean. Ondorengo antzintasun taldeetan Toyotak du lider-tza. Eta Mercedes SL da lehena 8 eta 9 eta 10 eta 11 urte bitarteko antzintasuna duten taldeetan.

1etik 3 urtetara	4tik 5 urtetara	6tik 7 urtetara	8tik 9 urtetara	10etik 11 urtetara
1. Ford Focus 1,0	1. Toyota Startet 2,1	1. Toyota RAV 44,1	1. Mercedes SL 5,4	1. Mercedes SL 6,8
2. Toyota Avensis 1,7	2. Nissan Maxima 3,5	2. Mercedes SL 5,1	2. Porsche 911 6,2	2. Porsche 911 8,1
3. Toyota Startet 2,1	3. Subaruru Impreza 3,6	3. Porsche 911 5,4	3. Toyota Carina 8,3	3. Toyota Carina 11,7
4. Toyota Picnic 2,1	4. Subaruru Legacy 3,8	4. Subaruru Impreza 5,4	4. Subaruru Legacy 9,3	4. Subaruru Legacy 12,5
5. Toyota Corolla 2,1	5. Porsche 911 3,9	5. Toyota Carina 6,1	5. Mercedes Clase S 9,5	5. Mercedes W124 13,4
		Toyota Startet 6,1		

Ford Focus
 Diseinu inteligentea



MUGARRI AUTOAK

Araba etorbidea, z/g ARRASATE-MONDRAGON Tel: 943 797 564
 mugarri@mugarri.es

902 442 442
 www.ford.es